BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2396

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 9koa, HABEren zuzendari nagusiarena, udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei, 2013-2014 ikasturtean euskara-ikastaroengatik esleitutako diru-laguntzak argitara ematen dituena.

2013ko irailaren 23ko EHAAn argitaratu zen udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei eta udal titularitateko euskaltegi publikoei 2013-2014 ikasturteko diru-laguntzak emateko baldintzak ezartzen dituen HABEren zuzendari nagusiaren 2013ko abuztuaren 12ko Ebazpena.

Aipatu Ebazpenaren 6.3 artikuluak dioenez, dirulaguntzak esleitzen dituen ebazpenaren berri onuradun bakoitzari emateaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira emandako diru-laguntzak eta horien onuradunak.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– HABEren zuzendari nagusiaren 2013ko abuztuaren 12ko Ebazpenaren babesean esleitutako diru-laguntzak eta hauen onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Donostia, 2014ko maiatzaren 9a.

HABEren zuzendari nagusia,
JOSEBA ERKIZIA ITOITZ.

ERANSKINA

Onuraduna	Euroak
Laudioko Udal Euskaltegia	428.840,75
Aitzol Udal Euskaltegia	329.024,17
Arrasateko Udal Euskaltegia	372.805,55
Azpeitiko Udal Euskaltegia	151.913,67
Beasaingo Udal Euskaltegia	192.682,03
Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegia	122.385,99
Bergarako Udal Euskaltegia	193.132,70
Debabe Udal Euskaltegia	218.783,60
Eibarko Udal Euskaltegia	348.650,52
Errenteriako Udal Euskaltegia	347.381,36
Hernaniko Udal Euskaltegia	220.726,97
Hondarribiko Udal Euskaltegia	205.784,88
Irungo Udal Euskaltegia	545.114,36
Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia	250.450,54
Legazpiko Udal Euskaltegia	174.710,53
Leintz Udal Euskaltegia	186.678,69
Pasaiako Udal Euskaltegia	293.496,89
Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegia	260.707,05
Zarauzko Udal Euskaltegia	220.775,07
Aita Villasante Udal Euskaltegia	211.245,58
Arrigorriagako Udal Euskaltegia	199.093,97
Barakaldoko Udal Euskaltegia	704.116,61
Basauriko Udal Euskaltegia	657.881,72
Durangoko Udal Euskaltegia	267.212,53
Enkarterriko Udal Euskaltegia	221.647,46
Erandioko Udal Euskaltegia	219.956,51
Ermuko Udal Euskaltegia	119.469,42
Galdakaoko Udal Euskaltegia	299.913,01
Getxoko Udal Euskaltegia	717.947,81
Mastitxu Udal Euskaltegia. Leioako Udala	344.711,52
Mungiako Udal Euskaltegia	135.585,96
Muskizko Udal Euskaltegia	182.340,76
Portugaleteko Udal Euskaltegia	580.338,02
Santurtziko Udal Euskaltegia	415.748,37
Sestaoko Udal Euskaltegia	279.791,71
Sopelako Udal Euskaltegia	217.157,78
Trapagarango Udal Euskaltegia	211.731,52
Txorierriko Udal Euskaltegia	236.191,24
Zornotza Udal Euskaltegia	202.595,59
Guztira	11.488.722,41